


Azterketa honek bi aukera ditu. (A AUKERA, B AUKERA). Bakarrik bat garatu behar duzu. 60 minutu dituzu.

A AUKERA - 10 puntu

Egin ezazu Herbert List-en argazkiaren erreprodukzioa DIN-A4 tamainako paperean. Erabil itzazu tonu-balio lauak (klabe altua, ertaina eta baxua) zona argi eta itzaltsuetan. Jarri arreta kaxatzeko prozesuan, proportzioetan eta argi-ilunetan.



B AUKERA - 10 puntu

Perspektiban marrazten duzun **gainazal horizontal lau** batetik abiatuta, egin konposizio bat DIN A4 tamainan eta interpretatu koloretan.

Konposizioan, eredu gisa emandakoetatik gutxienez **hiru elementu** agertu behar dira. Objektuetako batek beste baten aurrean egon behar du. Aukeratzen dituzun objektuek ez dute zertan agertzen diren ikuspuntua edo kolorea mantendu. Zuri interesatzen zaizun tamaina eman diezaiekezu.

